

1 Euskal Moda deialdia

1.1 Helburua

Tokiko artisten, artisauen, diseinatzaileen talentuari, edo markei, ikusgarritasuna emateko helburuz, FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN asmoa da Cristóbal Balenciaga Museoa –museoaren eremu komertzialaren barruan– gune bat gaitzea, sortzaile horien bilduma propioetako produktuak erakusteko eta gordailutan saltzeko aukera emango duena.

Era horretan, museora bertaratzeko den publikoak, nazioarteko profila duen publikoak, diseinuaren eta modaren fenomenoarekiko sentsibilitate-maila handikoak, aukera izango du tokiko sortzaileen produktuak –hautatuak izan diren haien proposamenen artean– ezagutzeko eta, hala badagokio, erosteko.

Asmo hori betetzeko, proposamenak aurkezteko deialdi bat antolatu da. Deialdi horretan hautatutako proposamenak museoeko *merchandising*aren ohiko produktuekin batera erakutsiko dira eremu komertzialean, 6 hilabetez, gutxi gorabehera, epea luzatzeko aukerarekin.

1.2 Eskatzaileak

Eskatzaile fisikoek nahiz juridikoek Euskal Autonomia Erkidegoan izan behar dute zerga-helbidea, eta, hautatuak izanez gero, proposamenen bildutako produktuak salmentarako hornitzeko moduan egon behar dute.

1.3 Produktuak

Proposamenetan biltzen diren produktuek modako diseinuarekin lotura duten kategorietakoak izan behar dute, besteren artean: zapiak, poltsak, bitxiak, kapelak, burukoak, gerrikoak, oinetakoak edo jantziak, betiere, produktu horiek erabilgarri dagoen espaziora egokitzeko modua baldin badago eta probalekurik erabiltzeko premiarik ez badakarte, ez baitago museoan halakorik.

Proposamenetako produktuek gutxienez hornikuntza komertziala berehala bermatu ahal izateko moduan egon behar dute eskuragarri.

Produktuek eskatzailearen jatorrizko diseinua izan behar dute. Dena dela, deialdi honetarako ez da beharrezkoa produktuen diseinua eskusiboa izatea, edo bide honetatik bakarrik erakutsi edo saltzea.

Deialdi honen helburuaenez tokiko sortzaileen lan-lerroei komunikazio-aukera eta ikusgarritasuna ematea, asmoa ez da sortzaileek Cristóbal Balenciaga Museoari, bere irudiari edo bere markari lotutako produktuak garatzea, edo bertako edukietan inspiratutakoak izatea.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da produktuen izaera modaren munduari lotuta egotea eta proposamenean aurkezten den produktu zehatzen hautaketa berau ikusgai jartzeko esleitutako espaziora egokitzea. Hortaz, eskatzaile bakoitzak erabakiko du bere lana ondoen ordezkatzeko duela eta erabili ahal izango duen espazioan ondoen egokitzen dela iruditzen zaion proposamen zehatza egitea.

1.4 Espazioa

Deialdi honen xedeari eskainitako erakusketa-espazioa denda-eremuan dago, museoaren muinean.

Euskal Modaren produktuei bereizgarri bat atxikiko zaie. Horrez gain, markei buruzko material komertziala ere eskuragarri izango da (aurkezpen txartelak), eta bezeroei emango zaie eresketa egiten dutenean.

Produktuak espazioan aurkezteaz FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA arduratuko da; irizpide propioak erabiliko ditu horretarako, multzo osoaren itxura erakargarria izan dadin.

Produktuak aurkezteari loturiko erabakia apelaezina da.

1.5 Proposamenen aurkezpena

Eskatzaile bakoitzak 6 hilean behin proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du deialdi honetara. Deialdia iraunkorra da; alegia, ez du amaitzeko eperik.

Proposamen bakoitzean, produktu bat gutxienez eta hamar gehienez sartu behar dira.

Proposamenak posta elektronikoz aurkeztu behar dira, honako helbide honetan: denda@crislobalbalenciagamuseoa.com. Mezuaren gaiaren eremuan «Euskal Moda Gunea» idatzi behar da.

Proposamenak aurkezteko formatua pdf dokumentu batena izango da, eta bere pisuak ezingo ditu gainditu 5 MBak, eta honako atalak bilduko ditu :

- Eskatzailearen kontaktu datuak eta posta elektronikozko helbidea.
- Marka edo sortzailearen aurkezpen laburra.
- Tokiko Diseinuaren Gunerako aurkeztutako produktu bakoitza, argazki eta guzti (produktuaren 3 argazki, gehienez, ikuspegi desberdinetatik ateratakoak), eta gutxienez honako xehetasun hauek zehaztuta: diseinuaren kontzeptua edo ideia, materialak, funtzionalitatea, neurriak eta salmenta-prezioa (BEZA barne).

Eskatzaileek baldintza guztiak bete beharko dituzte. Ez da onartuko osatu gabe dagoen edo hutsuneren bat duen eskaririk.

Deialdi honetan eskaera bat aurkeztean, eskatzaileak adierazten du bertako baldintzak eta betebeharrak ulertu, onartu eta betetzen dituela.

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK hautaketa-irizpideak ondoen betetzen dituzten eta erakusketa guneari ondoen egokitzen zaizkion banakako produktuen sorta bat aukeratuko du proposamenen artetik, edo, egoki iritziz gero, proposamen osoak.

Ez dago aurrez mugatuta proposamen bakoitzetik hauta daitezkeen produktuen kopurua, ezta deialdiaren xede den gune horretan ordezkatuta egongo diren eskatzaileen kopurua ere. Jasotako proposamenen kopuruaren eta gunearekiko egokitasunaren arabera erabakiko da.

Hautaketari buruzko erabakia apelaezina da.

1.6 Datu pertsonalak babesteari buruzko legea

Eskatzaileei jakinarazten zaie erakundeak tratatu egingo dituela eskaintzan jasotako datu pertsonalak nahiz hautatuak izanez gero hautagaiek ondoren FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI emango dizkieten bestelako datuak (adib.: izen-abizenak, NAN zenbakia eta helbide elektronikoa), deialdi hau kudeatzeko, proposamenak hautatzeko eta hautatutako pertsonekin harremana kudeatzeko helburuarekin; hori guztia, haien oniritziaren oinarri juridikoaren babesean.

Testuinguru honetan, eskatzaileei jakinarazten zaie datu pertsonal horiek ematea derrigorra dela eta horiek ez aurkeztea edo datu okerrak ematea oztopoa izango dela FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK haien eskaera kontuan har dezan.

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK eskatzaileen datu pertsonalak gordeko ditu eskabidea baloratzeko beharrezkoa den denbora-tartean, baita hautagaiek deialdian izango duten parte-hartzea kudeatzeko ere, lege-obligazioak betetzeko datuak gorde beharreko denbora-tarte gehigarrian.

Kasu orotan, eskatzaileei jakinaraziko zaie eskubidea dutela (I) FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI eskatzeko euren datu pertsonaletara sartzea, eta horiek zuzendu, ezabatu, horien tratamendua mugatu eta horiek eskualdatzeko edo tratamendua aurkaratzeko, idatzizko eskaria zuzenduta FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI, honako posta helbide honetara: Aldamar parkea 6, 20808 Getaria (Gipuzkoa); eta, era berean, eskubidea dutela (II) erreklamazioa aurkezteko Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean edo eskumena duen edozein Kontrol Agintaritzaren aurrean, bereziki eskubideak baliatzeko orduan bere nahiak asebetze ez direnean.

Proposamenak aurkeztean, eskatzaileek berariaz ematen dute baimena (I) euren datu pertsonalak adierazitako baldintzetan tratatu daitezen; eta (II) euren datuak lagatzeko Cristóbal Balenciaga Museoko denda ustiatzeko ardura (eta, beraz, hautatutako pertsona eta markek hornitutako produktuak gordailuan saltzeko ardura) izango duen enpresari/erakundeari, FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA funtzio horretaz modu zuzenean arduratzen ez den kasuetan.

Oinarri hauen inguruko edozein zalantza izanez gero, argibideak idatziz jaso ahal izango dira mail bat bidaliz denda@crislobalbalenciagamuseoa.com edo museoko telefonora deituz 943 004 777 (denda).

1.7 Proposamenen hautaketa

Hautaketan ondoko alderdiok balioetsiko dira:

- Diseinuaren ideia.
- Iraunkortasun-irizpideak produktuan/produktuetan.
- Produktuaren/Produktuen negozio-bideragarritasunaren potentziala.
- Proposamenaren egokitasuna, dendako salgai-sorta osoari dagokionez, eta, bereziki, Euskal Modaren beste proposamen batzuei dagokienez.
- Museoarekin eta horren markarekin duen lotura.

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN taldeak egingo du hautaketa.

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK beretzat gordeko du deialdi hau hutsik deklaratzeko eskubidea, erakusketa-proiekturako eta eskaini nahi den espaziorako behar adina kalitate-maila betetzen duten nahikoa proposamen ez dagoela irizten badio.

Hautaketa-prozesuan, Cristóbal Balenciaga Museoak beretzat gordeko du proposamen baten barruan produktuen lagin fisikoak eskatzeko eskubidea.

Aurretiko hautaketaren berri parte-hartzaileek proposamena posta elektronikoz aurkeztu eta 60 eguneko epearen barruan emango da. Une horretatik aurrera, 30 eguneko gehieneko epea izango dute hautatuek deialdi honen II. atalean eskatzen zaizkien baldintza guztiak betetzeko.

Hautatutako pertsonak edo markek deialdiaren baldintzak onartu behar dituzte, hautatutako gainerako proposamenei buruzko informaziorik eduki gabe edo denda-eremuan beren produktua nola erakutsiko den jakin gabe.

Behin baldintzak onartuta, hautatutako pertsonak eta markek ezingo dituzte beren proposamenak erretiratu.

2 Hautatutako proposamenentzako baldintzak

2.1 Produktua komertzializatzeko baldintzak

Erakusgai dauden produktuen stocka eta salmenta kudeatzearen arduraduna Cristóbal Balenciaga Museoko denda izango da; gordailua eta salmenta-baldintzak 2. eranskin gisa gehitutako ereduaren arabera formalizatuko dira, hautatzen diren pertsona eta markekin batera.

Cristóbal Balenciaga Museoko dendak % 30ko komisioa jasoko du produktu bakoitzaren PSPAREN gainean, salmenta-komisio kontzeptuan, BEZ kanpo. Komisio hori lagatze-aldiaren amaieran likidatuko da.

Erakutsi eta saltzeko diren produktuez gain, eskatzaile bakoitzak produktu-unitate bat utziko du lagin gisa edo probatzeko. Unitate horiek ez dira ikusgai jarriko; horren ordez, Museoko dendak edukiko ditu bere babesean, hain zuzen ere eskatzen duten bezeroek probatu, gertutik ikusi edo ukitu ahal izateko. Cristóbal Balenciaga Museoko denda ez da izango ikusgai egon diren produktuen amaierako egoeraren erantzulea, hondatuta egon baitaitezke izan duten erabileragatik.

Produktuak 6 hilabete inguruz egongo dira erakusgai; epe hori amaitutakoan, sobera gelditutako stocka jasoko dute eskatzaileek. Dendak hala eskatuz gero, akordio berri bat sinatu ahal izango da epe hori luzatzeko.

2.2 Hedapena

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK hautatutako pertsonen edo marken hedapena egingo du, baita museoaren webgunearen eta sare sozialen bidez ere.

Hautatuek konpromisoa hartu behar dute ekimenaren hedapenean lankidetzan aritzeko eta proposamenean biltzen diren irudietatik edozeinen doako erabilera lagatzeko, Cristóbal Balenciaga Museoren proiektuaren ondorioetarako.

Era berean, eta FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK hala eskatuta, hautatuek konpromisoa hartzen dute erakustaldi / topaketa batean parte hartzeko; saioak 4 orduko iraupena izango du gehienez, eta xedea izango da produktuak egiteko orduan erabilitako teknikak eta sortze-prozesua erakustea jendeari.

2.3 Bestelako betebeharrak

Hautatutako pertsonen edo markek eskatutako informazio osagarria eman beharko dute FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK ezarritako epeetan eta unean.

Hautatutako pertsonen edo markek konpromisoa hartzen dute eranskinetan jasotako gordailutze-baldintzak eta baldintza ekonomikoak onartzeko eta sinatzeko, baita produktuak emateko ere, zeinak gordailutuko baitira FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK ezarritako denboran.

Aurretiko hautaketan aukeratutako proposamen jakin bat behin betiko onartzeko erabakia bertan behera utzi ahal izango da FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK hala erabakiz gero, baldin eta prozesuaren edozein unetan betetzen ez baditu deialdi hau arautzen duten kalitateari buruzko igurikapenak, alderdi etikoak edo legezko betebeharrak.

2.4 Jabetza industrialaren edota intelektualaren eskubideak

Hautatutako eskatzaileek bermatu egin beharko dute beren produktuen erakusketak eta, hala badagokio, salmentak, xede horretarako FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK gaitutako espazioan, ez dutela urratzen hirugarrenen Jabetza Industrialaren edota Intelektualaren zeinahi eskubide edo bestelako zeinahi eskusibotasun-eskubide produktu horien banaketan edota salmentan, eta produktuek ez dutela inongo erreklamaziorik jaso beren diseinuari, aurkezpenari eta abarri dagokienez.

Horrez gain, eta deialdi honetan adierazitakoarekin bat etorritik, FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK Cristóbal Balenciaga Museoko eremu komertzialean hautatuen eta haien produktuen elementu identifikagarriak landu eta kokatu ahal izateko, hautatuak izan diren eskatzaileek ondoko baimenak/eskubideak emango dizkiote FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI:

1. Hautatutako eskatzailearen izena erabiltzeko baimena bere produktuen erakustaldian zehar. Baimen hori doakoa izango da.
2. Hautatutako eskatzaileen izen komertziala, web orriaren helbidea eta beren titulartasuneko beste edozein elementu bereizgarri ustiatzeko lizentzia, ez eskusiboa, doakoa eta besterenezina, eta bere iraupena, kasu orotan, deialdi honetan ezarritako indarraldira eta eremu objektibora mugatuko da..
3. Ustiapen-lizentzia ez eskusiboa, doakoa eta besterenezina, proposamenean barne hartutako irudien eta bestelako zeinahi edukien gainean, beren produktuen ustiapenaren indarraldira denboran mugatua eta FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK deialdi honen xede den ekimena argitaratzeko eta hedatzeko erabili ahal izan dezan.

Dena dela, hautatuetako bakoitza Jabetza Industrialaren edota Intelektualaren zeinahi erreklamazioen erantzulea izango da, baita deialdi honekin eta FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK horretarako propio gaitutako espazioan beren produktuen erakusketarekin eta salmentarekin zerkusirik ez duten hirugarrenek planteatu ahal izango dituzten erreklamazioen erantzulea ere, eta erakunde honi kalte-ordaina eman behar izango dio, kontzeptu horien ondoriozko zeinahi erreklamaziotik eratorritako kalte-galera guztiengatik.



Erantzukizunpeko adierazpen eredia, kontratatzeko debekuen eta bateraezintasunen pean erori ez izanarena, zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekin dituenak egunean edukitzearena eta jarduera ekonomikoa burutu ahal izatearena.

IZENA

NAN/AIZ

ORDEZKARIA

IFZ

KARGUA

ADIERAZTEN DU

- I. Sozietatea, dagozkion administratzaileak eta legezko ordezkariak, baita sinatzailea ere, ez direla erori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren -azaroaren 14ko3/2011 Errege Lege Dekretu bidez onetsitakoa- 60. artikuluan adierazitako debeku eta bateraezintasun bakar baten pean ere.
- II. Aipatutako pertsona fisikoak edo erakundeak indarrean dauden xedapenek inposatutako zerga-betebeharrak egunean dauzkala baita Gizarte Segurantzarekin dituenak ere, eta baldin baditu, bermatuta daudela.
- III. Aipatutako pertsona fisikoa edo erakundea EJZren epigrafe batean eta BEZaren zentsuan alta emanda dagoela, proposamenean bildutako produktuen ekoizpen-eta salmenta-jarduerak burutu ahal izateko.

LEKUA

DATA

SINADURA

Museoaren dendan gordailuan hartutako produktuak saltzeko kontratu eredia

GETARIAN

DATA

BILDUTA

IZENA

NAN/AIZ

ORDEZKARIA

HELBIDEA

IFZ

erakunde horren administratzaile kudeatzailea den aldetik/norbere izenean eta ordezkartzan, aurrerantzean, HAUTATUA.

Beste alde batetik, ANA MIRIAM VIVES andrea, 35777538A NAN zenbakiduna, FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAren izenean eta haren ordezkartzan (helbidea: Aldamar parkea 6, 20808 Getaria; IFK: 35777538A), erakundearen zuzendaria den aldetik.

ADIERAZTEN DUTE

- I. FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta Cristóbal Balenciaga Museoa eta bertan dagoen denda (aurrerantzean, CBM DENDA) kudeatzen ditu.
- II. HAUTATUA moda-osagarriak diseinatu eta produzitzen dituen pertsona/erakundea da, hain zuzen:

JARDUERA/MARKA

- III. Kontratu honen xedea da bi aldeak lankidetzan aritzeko baldintzen esparrua ezartzea.

Estipulazioak

LEHENA. XEDEA

Kontratuaren xedea da HAUTATUAK hornitutako gordailu-produktuak saltzea CBM DENDA espazioan.

Helburu horrekin, CBM DENDAk ondoko jarduerak egingo ditu:

Zerrendan barne hartutako ondoko produktuen stock bat jaso, mantendu eta kudeatuko du:

Kopurua PSP/unit.

PRODUKTUA

PRODUKTUA

PRODUKTUA

PRODUKTUA

PRODUKTUA

PRODUKTUA

PRODUKTUA

PRODUKTUA

PRODUKTUA

PRODUKTUA

Ondorio horietarako, HAUTATUA hornitzaitzat hartuko da CBM DENDAK egindako ondoko produktuen gordailu-salmentan.

BIGARRENA. IRAUNALDIA

Kontratu honen iraupenaldia honako datara arte luzatzen da:

DATA

2. ERANSKINA. HAUTATUTAKO PERTSONA EDO MARKENTZAT SOILIK

HIRUGARRENA. JARDUNA

Produktuen salmenta-zerbitzuaren dendako jarduna orientabidezko egutegi eta ordutegi honen arabera egingo da, museoen beharren arabera:

Uztaila eta abuztua: astelehenetik igandera, 11:00etatik 19:30era
Iraila eta urria: asteartetik igandera, 11:00etatik 19:00etara
Azaroa eta abendua: larunbatak eta igandeak, 11:00etatik 14:30era

LAUGARRENA. STOCKA

HAUTATUAK CBM DENDA hornituko du produktu eta enbalaje bakoitzaren hasierako stock batez (lehen puntuan zehaztua).

Produktuen stocka adierazten den mailara iristen denean, ondoren CBM DENDAK jakinaraziko dio HAUTATUARI stocka aste leko epean birjartzeko. Halakorik egingo ez balu, CBM DENDAK erakustokitik kendu ahal izango luke produktua, salmentarako stocka jaso artean.

BOSGARRENA. ERAGIKERA

CBM DENDAKo langileek bere kudeaketa sisteman emango diote alta HAUTATUAREN jabetzako produktuen eta enbalajeen stock eskuragarriari, eta produktuaren berri jakin nahi duen publikoari arreta emateari ekingo diote.

Horretarako, CBM DENDAKo langileek stockaren produktu-unitate bat erabili ahal izango dute lagin gisa edo probatzeko, eta ez dira produktuen amaierako egoeraren erantzule izango.

Salmenta bat egitean, CBM DENDAKo langileek erregistratu egingo dute, eta HAUTATUAK markatutako PSPan ordaintzeari ekingo diote (lehen puntuan zehazten da PSP).

Jarraian, CBM DENDAKo langileek produktua bezeroari emango diote, Cristóbal Balenciaga Museoko dendaren bilgarri estandarra edo hornitzaileak emandako produktuaren packaging espezifikoa erabilita.

Hilabete bakoitzaren amaieran, gordailu-aldian zehar, CBM DENDAK jakinaraziko dio HAUTATUARI zein den egindako salmenten guztizkoa eta azken stock-maila.

15 egunetako gehienezko epean HAUTATUAK aldi horretan egindako salmentei dagozkien produktuak fakturatzeari ekingo dio.

Gordailu-aldia amaitzean, eta dagozkion likidazioak egin ondoren, HAUTATUAK saldu ez den stocka erretiratzeari ekingo dio.

SEIGARRENA. JABETZA INDUSTRIALAREN EDO INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

HAUTATUAK CBM DENDARI bermatzen dio kontratu honen arabera bere produktuen erakusketak eta salmentak ez dutela urratuko hirugarrenen Jabetza Industrialaren edota Intelektualaren zeinahi eskubide edo bestelako zeinahi eksklusibotasun-eskubide produktu horien banaketan edota salmentan, eta produktuek ez dutela inongo erreklamaziorik jaso beren diseinuari, aurkezpenari eta abar dagokienez.

2. ERANSKINA. HAUTATUTAKO PERTSONA EDO MARKENTZAT SOILIK

Dena dela, HAUTATUA Jabetza Industrialaren edota Intelektualaren zeinahi erreklamazioen erantzule izango da, baita kontratu honekin eta CBM DENDArekin aldetik bere produktuen erakusketarekin eta salmentarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek planteatu ahal izango dituzten erreklamazioen erantzulea ere, eta erakunde honi kalte-ordaina eman behar izango dio, kontzeptu horien ondoriozko zeinahi erreklamaziotik eratorritako kalte-galera guztiengatik.

ZAZPIGARRENA.- PREZIOA, LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

Gordailuko produktuak LEHEN ESTIPULAZIOA. XEDEA taulan adierazitako Publikoarentzako Salmenta Prezioan (BEZ barne) salduko dira.

HAUTATUAK CBM DENDARA igorriko dituen fakturretan likidatuko den salmenta-prezioa salmenta bakoitzean aplikatutako Salmenta Prezioa (BEZ gabe) izango da, % 30 murriztuta, beherapen gisa. Zenbateko horri dagokion BEZ gehituko zaio.

Faktura jaso eta hurrengo 30 egunen barruan egingo da ordainketa.

ZORTZIGARRENA. JURISDIKZIOAREKIKO MENDEKOTASUNA

Kontratuaren inguruan auzirik sortuz gero, aldeek espresuki egiten diote men Donostiako Epaitegien eta Auzitegien jurisdikzioari.

Eta aurrekoarekin ados daudela erakusteko, dokumentu honen bi kopia sinatu dituzte bi aldeek, goiburuan adierazitako lekuan eta datan.